

## GETXO. 20 lan antzeztuko dabez, bihar eta etzi, Getxo antzokian



EGUNKARIA

Getxoko ikasleek 20 antzeztan agertuko dabez, 10 euskeraz eta beste 10 gaztelaniaz.

# 300 ikasle ibiliko dira ume antzerkiaren jardunaldietan

### Herriko ikastola, eskola, eta institutu publikoek hartuko dabe parte

Veronica Muñoz |

Getxoko Ume Antzerkiaren XIX. Jardunaldiak egingo dabez, bihar eta etzi, Algortako Getxo antzokian. Ikasturte osoan antzerki mintegietan ibili diran ikastola, ikastetxe eta institutu publikoetako 300 ikasle baino gehiagok hartuko dabe parte jardunaldietan.

Ikasleek osotutako 20 taldek agertuko dabez antzeztanak; hamar antzeztan euskeraz, eta beste 10 gaztelaniaz emongo dabez, zentroaren arabera. Gainera, emonaldiak ikusteak doan urtengo dau. Gazteek antzeztan bakotxaren ideia, eszenografia, eta arropa be prestatu dabez.

Horrezaz ganera, obren artean bideo batzuk botako dabez, publikoak ikasleek urte osoan egindako beharra ikusi daian.

#### Zentro publikoetako ikasleak

Jardunaldiak bihar zabalduko dabez, goizeko 11:30ean. Algortako Juan Bautista Zabala, San Ignacio eta Larrañazubi ikastetxeetako ikasleek eta Andra Mari Geroa ikastolakoak igongo dabe Algortako agertokira, urte osoan prestatutako lanak publikoaren aurrean aurkezteko. *Heredentzia*, *Laboratorios L.P.T.C.*, *Hilerian*, *De nuevos jóvenes* eta *La loteria* izeneko antzeztanak ikusi ahal izango dira, goiz osoan zehar.

Arrastian, 17:00etatik aurrera, Zubilleta eta Andra Mari ikastetxeetako eta Julio Caro Baroja institutuko ikasleen txandea izango da. Ondorengo lanak agertuko dabez: *En busca de las hijas del sol*; *Ortzadarra*; *¿Esto es un consultorio?*; *Eskola Misteriotsua*; *Noticiario de R.V*; *Hotelaren inaugurazioa*, eta, azkenik, *Los marcianos somos gente corriente*.

Domekan bertan, umeek egindako antzerkia izango da jaun eta jabe goizean, Getxo antzokian. Oraingoan, ondorengo zentroetako ikasleak ibiliko dira agertokian: Getxoko Andra Mari, Areetako Erromo, Neguriko Gobela, Algortako Zubilleta, eta Areetako Erromo institutukoak. *Bost izarretako hotela*, *Queremos animales*, *Erregina eta erregea*, *Ospitalean*, *La agencia de trabajo*, *A*, *ze moda*, *Etxe salmantan* eta *La noche del debate* antzeztanak ikusteko aukerea izango da, etzi.

#### 18 urte, gazteen artean antzerkia bultzatzen

Umeen antzerkia bultzatzeko alkarteak gertau dauz jardunaldiak, urtero lez, Getxoko Udalarren eta kultur etxearen laguntzeagaz. Udalerriko zentroak behar egiten dau alkarte horrek, 1983 urtetik gehiago. Amaitzeko dagoan ikasturtean, hain zuzen be, lehenengo eta bigarren hezkuntzako 700 ikasle inguruk alkarteak eratutako tailerretan hartu dabe parte.

Musika Eskolan.

**Fano auzoko jaiak:** Txupinazoa 19:00etan botako dabe, eta jarraian tortilla lehiaketeta izango da. Iluntzerako, jaialdia eta karaokea prestatu dabez.

#### BERANGO

**Gazte Euskaltegia:** Berangoko kultur etxeak eratu dau, 6 eta 12 urte arteko ume euskaldunentzat. Garagarrilaren 2tik 24ra egingo dabe, kultur etxean. Izena emoteko epea bagilaren 24an amaituko da. Ekitaldian parte hartzea doan da, eta plazak mugatuak dira.

#### MUNGIA

**Umeentzako zinea:** *Una foca en mi casa* botako dabe, 18:00etan, Mugire Txokoan.

**Zinea:** *Lock&Stock*, 20:30ean, Torrebillelan. Sarrerea 100 pezetan dago.

### AGENDEA

#### GETXO

**Blues Jaialdia:** Lucky Peterson Band, 21:30ean, Erromoko Santa Eugenia plazan. Sarrerea doan da.

**Kontularien kluba:** Algortako kultur etxe areto nagusian, 19:30etik aurrera. Sarrerea doan da. Gaur ikasturteko azken saioa izango da.

#### LEIOA

**Txorierriz auzoko jaiak:** Txupinazoa 18:00etan botako dabe, eta 18:30etik aurrera gazteentzako ginkana izango da. Iluntzeko 23:00etarako dantzaldia gertau dabe.

#### ERANDIO

**Kontzertua:** Piano eta abotsaren kontzertua, arrastion, Astrabuduako

### LAGUARREAN

#### ERANDIO

#### Euskadiko Sokatira Txapelketea jokatu dabe, bihar arrastian, Goiherriko Martiartu auzoko jaietan

Erandioko Goiherriko jaiak arrastion hasiko dira; 18:30ean txupinazoa eta jaiatsiera izango dira, eta iluntzerako gaupasea egingo dabe, Sakatrik taldeagaz. Zapatuan umeentzako tailer-rrak zabalduko dabez, egun osoan. Arrastiko 17:00etan, barriz, Euskadiko Sokatira Txapelketea jokatu dabe, 560/600 kilotan. Ondorengo taldeek hartuko dabe parte proba horretan: Aresok, Getxok, Nuarbek, eta Goiherrik. Arrastiko 18:00etan zaldi probak hasiko dira eta iluntzean kontzertua dago, Sagarri taldeagaz, eta berbenaldia, Urgabe taldeagaz. Domekan, meza ostean, Udal Bandearen kontzertua izango da, eta arrastian, barriro, zaldi probak egingo dabez.

#### ERANDIO

#### Drogamenpekotasunen aurka, Osasun Jaia

Osasun Jaia gertau dau Erandioko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Batzordeak, biharko. Jaialdia Akarlanda parkean egingo dabe, goizeko 11:00etatik aurrera. Umeentzako jolasak eta tailer-rrak egingo dabez, goiz osoan. 11:30ean kalejireia izango da, Musika Eskolearen eskutik. Eguerdirako dantzaldia prestatu dabe, eta arrastian karaokea izango da. Horrezaz ganera, egun osorako globo aereoestatikoa, rokodromoa, puzgarriak eta beste hainbat ekitaldi daukiez.

#### GETXO

#### Goizean zabalduko dabe Almoneda Azokea

Almoneda Azokea gaur inauguratu dabe, goizeko 11:00etan, Areetako geltoki plazan. Tresna eta era guztietako gauza zaharrak baten dabezan 50 erakuslek hartuko dabe parte azoka barrian, domeka bitartean. Gitxiene orain dala 40 urte egindako gauzak erakutsiko dabez, eta horreexen artean gauza bitxiak ikusteko aukerea be izango da. Azokea egun osoan zabalduko dabe, Artisau Azokea ipini eben karpa berean, 11:00etatik 21:00etara. Sarrerea 300 pezetan ipini dabe.

#### GETXO

#### Dendarientzako ikastaroak prestatu dauz Merkatarien Alkarteak, datozen egunotarako

Getxoko Merkatarien Alkarteak ikastaro batzuk prestatu dauz, datozen egunotarako. Bagilaren 11tik 14ra, bezeroen arretarako heziketea emongo deusiee gura daben alkarteko dendariei. Bagilaren 18tik garagarrilaren 3ra, beste aldetik, dendak kudeatzeko informatiketa erabilten ikasteko heziketea jasoko dabe dendariek. Azkenik, beharrean arriskuak ekiditeko ikastaroa izango da, bagilaren 25etik 28ra. Ikastaro guztiak arrastiko 14:15etik 16:15era emongo dabez, alkarteko egoitzan. Informazio gehiagorako: 94 430 55 00.

#### BERANGO

#### Txori kantarien lehiaketeta izango da bihar, udaletxe aurrean

150 txori inguru —burugorriak, kardantxiloak eta mistoak— aurkeztuko dabez, bihar, Berangoko Txori Kantarien Lehiaketan. Txori Lagunak taldeak antolatutako proba 9:30ean hasiko da, udaletxe aurreko landetan, eta izena emoteko epea ordu erdi lehenago itxiko dabe. Lehenengo hiru sailkatuak garagarrilaren 8an Bilboko Albia Lora-tegietan egiten daben finalean izango dira.

#### PLENTZIA

#### Kirolaren ganeko mahai ingurua, kultur etxean

Kirolak udal bizitzan daukan garrantziaren ganean hausnar egiteko mahai ingurua gertau dau Plentziako Udalak. Arrastiko 19:00etatik aurrera izango da eztabaidea, herriko kultur etxean. Bertan izango dira Luis Soler Aldundiko Kirol Sailaren zuzendaria, eta Melquiades Verduras, Jon Azkargorta, Jon Torre, Eneko Lopez eta Genar Andrinua gaurko eta lehenengo kirolari ezagunak, kirolaren ganean berba egiteko.